



PRENTSA OHARRA

Santa Maria katedralak Erdi Aroko musika eta musika tradizionala biltzen dituen kontzertua hartuko du uztailaren 9an, “Cantaderas” taldearen eskutik

- Emanaldia 20:00etan hasiko da, katedraleko nabean, eta doako sarrera izango du, Bisita Zentroan gonbidapena jaso ondoren.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko uztailaren 5ean.- Gasteizko Santa Maria katedraleko nabeak Erdi Aroko musika eta musika tradizionala biltzen dituen kontzertua hartuko du datorren ostiralean, uztailaren 9an, “Cantaderas” taldearen eskutik. Emanaldia 20:00etan hasiko da eta sarrera doakoa izango da, baina, egungo edukiera mugak betetzen direla bermatzeko, aldeztu aurretik gonbidapena jaso beharko da Bisita Zentroan.

Ana Arnaz, Anne Marie Lablaude, June Telletxea eta Paloma Gutiérrez del Arroyok osatzen duten taldeak Erdi Aroko idatzizko erreperitorio idatzizko pieza batzuk ahozko tradizio herrikoiko beste batzuekin batuko dituen kontzertua eskainiko du, eta lotura berezia sortuko du IX. mendetik XIII. mendera bitarteko kantu erlijiosoaren eta XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran Iberiar penintsulan bildutako kantutegien artean.

Cantaderaseko kideek formazio sendoa dute antzinako musikaren arloan, eta ahozko tradizioaren melodia, erritmo, forma eta estilo ezaugarri jakin batzuekin konbinatzen dute. Horrela, taldearen ezaugarriak erabat hautemateko aukera ematen duen testuinguru berri eta aberasgarria sortzen dute.

Ahozko korrante horri esker, erreperitorio aberatsa iritsi da gaur egunera, Erdi Aroko Iberiako “kantatrizeak” bezala, beraien kantuak hainbat perkusioarekin (panderoak eta panderetak, kriskitinak edo lauki itxurako panderoak) laguntzen dituzten eta soilik emakumez osatuta dauden taldeek abestuta.